

3.- Tokiko Erakundeen Partaidetza Egonkortzeko Funtsaren (TEPEF) saldoa Tokiko Erakundeen Foru Funtsean indibidualizatzea.

EUDELeK defendatzen du TEPEFen konpentsazioa modu indibidualizatuan egin behar dela, hau da, Tokiko Erakunde bakoitzak ekarpenak egin beharko lituzkeela aurreko urteetako TEFFFen likidazio negatiboak konpentsatzeko, Funtsean duten partaidetzaren arabera.

Hori horrela, aurtengo urtarrilean, EUDELeK TEPEFen indibidualizazioa eskatzeko txostena egin zuen eta Arabako Foru Aldundiari igorri zion; bertan, besteak beste, bi argumentu garrantzitsu justifikatzen ziren:

- TEPEFek estalitako zenbatekoek zorra sorrarazi dute Foru Aldundiarekin, eta, beraz, Tokiko Erakundeek Arabako Foru Aldundiarekin duten zorra jaso behar dute euren kontabilitate-egoeretan, aurreko urteetako TEFFFen likidazio negatiboak direla-eta. Horretarako, funtsezkoa da beraien gaineko ezagutza indibiduala izatea.
- Gertakari horrek ez lioke kalterik egingo Aurrekontuaren Egonkortasunerako Legearen iraunkortasun finantzarioaren printzipioaren instrumentazioari; izan ere, udal zorrari ez zaio gehitu behar TEPEFen ondorioz Foru Ogasunarekin izandako zorra, Aurrekontuaren Egonkortasunerako Lege Organikoaren araberrako zor-bolumena zehazteko orduan.

TEPEFen saldoak, 2012/12/31n, 60,9 milioi euroko zenbateko global osoa zeukan. Hala ere, orain arte ez da indibidualizatu. EUDELetik, gai honek duen garrantzia azpimarratzen jarraituko dugu.